

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2572

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 31koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez xedatzen baita Milagros Docampo Freiria andrea Arabako Espetxeko Segurtasuneko Zuzendariordetzako Segurtasuneko zuzendariorde kargutik kentzea (kodea: IP8358; dotazioa: 1).

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoa-ekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Milagros Docampo Freiria andrea kentzea Arabako Espetxeko Segurtasuneko Zuzendariordetzan betetzen zuen izendapen askeko lanpostutik (kodea: IP8358; dotazioa: 1) eta egin duen lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzteak 2022ko ekainaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak. eta egun hori izango da izendapen askeko lanpostuan zerbitzuak emateko azken eguna.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio agindu hau eman duen organoari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Adminis-trazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 31.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.